


## Euskadiko gazteek uste dute beraien egoera ekonomikoak txarrera egin duela haurtzarotik hona

Lehendakaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak, bere 73. Euskal Soziometroan (2021eko ekainekoan) galdera hau egin du: *0 eta 10 arteko eskala erabiliz, non 0ak maila baxuena edo pobrea adierazten duen eta 10ak altuena edo aberatsa, non kokatuko zenuke zeure burua gaur egun?* Gazteen Euskal Behatokiak 18 eta 29 urte bitarteko pertsonen emandako erantzunak aztertu ditu, bai eta gainerako biztanleen erantzunekin alderatu ere.

18 eta 29 urte bitarteko gazteen % 8k 0 eta 3 artean kokatu du bere burua, % 57k 4 eta 6 artean eta gainerako % 35ek 7 eta 10 artean. Gazteen batez bestekoa, 0 eta 10 arteko eskala horretan, 5,7koa da, Euskadiko biztanleria osoaren batez bestekoaren parean.

Baina haurtzaroan non zeuden adierazteko eskatzean, gazteek 6,1eko puntuazioa eman diote, batez beste, orduko egoerari; hau da, oraingo kokapenaren gaintik, bai eta biztanleriaren batez bestekoaren gaintik (biztanleria osoak, batez beste, 5,6an kokatzen du bere burua haurtzaroan). Izan ere, gazteak dira haurtzaroko maila ekonomikoa hobekien baloratzen dutenak eta haurtzaroaren egoerarekiko puntuazioak beherantz egiten du adinean gora egin ahala.

Adin-taldean arabera analisiak zera adierazten du: gazteek uste dute beraien maila ekonomikoa jaitsi dela, 30 eta 64 urte bitartekoen iritziz beraien egoera ekonomikoa bere horretan mantendu da, eta 65 urte eta gehiagokoen ustez beren maila ekonomikoa hobetu da.



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen datuak oinarri hartuta (73. Euskal Soziometroa)*

Ondoko taulak adierazten du adin-talde bakoitzean zenbaterik uste duten biztan zehar aurrerapen ekonomikoa izan dutela (norberaren gaur egungo egoera ekonomikoaren pertzepzioa gutxienez bi puntu hobea da haurra zeneko pertzepzioa baino, 0tik 10erako

eskanan), zenbatek uste duten beraien egoera egonkor mantendu dela eta zenbatek dioten beren egoera ekonomikoak txarrera egin duela (egungo egoera ekonomikoaren pertzepzioa gutxienez bi puntu okerragoa da haurra zeneko egoeraren pertzepzioa baino).

Taulan ikus daiteke, gazteen ustez, haiek osatzen dutela maila ekonomikoan gutxien hobetu eta, aitzitik, gehien okertu direnen taldea.

Euskadiko biztanleriaren banaketa, bere maila ekonomikoak haurtzarotik hona izan duen bilakaerari buruzko pertzepzioaren arabera, adin-taldeka					
(%)	Guztira	18-29 urte	30-45 urte	46-64 urte	65 urtetik gora
Hobetu da	26	17	21	25	38
Egonkor mantendu da	54	57	58	56	47
Okertu da	20	26	22	19	15
Guztira	100	100	100	100	100

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen datuak oinarri hartuta ( 73. *Euskal Soziometroa* )